

Jon Gandiaga, oilar harrapatzailea

“Batzuk gezurra esaten dizute, okertzeko”

Jon Gandiagak 8 urte ditu eta Ikastolako 3. mailan dago ikasle. Aurtengo Eguen Zuri eguneko oilar harrapaketa jokoan, bera izan zen hiru irabazleetako bat. 4 urtekoen gela batera ekarri genuen horren gainean berba egiteko.

- Zer pasatu zen Eguen zuri egunean, Jon?

Oilarra harrapatu nuela.

- Non zegoen ba?

Kutxa baten.

- Zelakoa zen kutxa hori?

Pixkatxo bat txikia, egurrezkoa eta goian zeukan oilarra ez zen benetazkoa.

- Nolakoa zen ba oilar hori?

Ladrilozkoa eta margotuta zegoen.

- Oilarrak lehen bizirik egoten ziren kutxa barruan...

Bai, baina orain animaliak ez dira benetazkoak, kendu egin dituzte.

- Oilarra, zergaitik ez dagoen bizirik badakizu?

Ez, ez dakit.

**[Oilar Egunean jolastor-
duan entrenamenduak egi-
ten egon ginen eta jokorako
erabilitako kutxa daukagu,
erraldoia (oilotoki oso bat
sartzeko beste).]**

- Zer iruditzen zaizu kutxa

**barruan sartzen bazara
eta esaten badiguzu zer
sentitzen duzun?**

Ondo!

- Ikusi egiten duzu?

Ez, ilun dago.

- Lekua, handia da?

Ez.

- Ondo zaude?

Leku txiki honetan, txarto.

**[Makila batekin kutxa gai-
nean jotzen dugu.]**

**- Oilarra bazina, makilare-
kin kutxa jotera joan, bel-
durtuko zinen?**

Oilarra banintz bai, zarata asko entzuten da eta.

**[Kutxatik irtetzen lagun-
tzen diogu.]**

**- Oilarrak kutxa barruan
sufritu egiten duela uste
duzu?**

Bai, asko. Hegaztiak dira eta ezin ditugu txarto trata-
tu.

**- Jokoan parte hartzeko,
zer egin zenuen?**

Ikastolan nire izena eman.



Zozketa egin zen eta tokatu zitzaionari mikrofonotik abisatu zioten.

**- Zure izena entzun zenue-
nean, nola sentitu zinen?**

Apurtxo bat urduri egon nintzen.

- Gero zer gertatu zen?

Begiak estali zizkidaten, bi gauzeekin, bi poltsekin. Beltzarekin ikusi egiten zen eta horregatik haren gainetik berdea ipini zidaten.

- Begiak estali ostean, zer eman zizuten?

Makila. Hiru buelta eman eta okertuta bazaude, zuzendu egiten zaituzte. Txistulariak atzetik datoz, musika jotzen. Bazterretatik jendea entzuten duzu "Ezkerre-
ra, eskuinera, zuzen!" esaten. Batzuk gezurra esaten dizute, okertzeko. Zarata handia zegoenez, nik nire ondoan zegoenari entzuten nion edo mikrofonotik hitz egiten zegoenari. Nire lagunak aurrean, kutxaren ondo-

an ipini ziren eta beraiek egia esaten zidaten.

- Eta kutxa ukitu zenuen...

Ezkerraldean jo nuen, er-tzean. Hasieran ez nekien zer jo nuen, barandila edo zer. Begietakoa kendu eta hantxe zegoen kutxa.

- Eta saria?

Garaikur karratu bat, gainean oilar txiki batekin. Idatzita dauka: "Eguen Zuri 2008. Ermua". Txeke bat ere eman zidaten, 30 eurokoa eta harekin liburuak erosiko ditut.

- Zure lagunek, zer esan zizuten?

"Zorionak, Jon!".

**[Guk gure eskertze oroi-
garria ere eman genion:
margo eta gometsekin egin-
dako marrazkia (gelako esti-
lora), Abadiñoko S. Blaseta-
tik ekarritako erroskila eta
bizpahiru Sugus. Harrapaka-
ri zoriontsuagorik!]**

Anaitasuna Ikastolako
4 urtekoak

ELEKTRAGAILUENTZAKO ZERBITZU TEKNIKOA

EGNA
ALDAGAILUAK

GARBIGAILUAK - SUKALDEAK - HOZKAILUAK
LEHORGAILUAK ETA BEROGAILU ELEKTRIKOAK

DIPUTAZIOA 7 # TLF. 943 17 66 08 # ERMUA
BIDEBARRIETA 33 # TLF. 943 70 28 33 # EIBAR



- Akordeoia	- Klarinetea
- Biolina	- Panderoa
- Biolontxelo	- Perkusioa
- Bonbardinoa	- Pianoa
- Flauta	- Saxofoia
- Kantua	- Trikitrixa
- Gitarra	- Tronboia
- Gitarra elektrikoa	- Tronpeta
- Gitarra baxua	- Txistua
- Lengoia musikala	

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com